



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA	2019DIRU0006
COD.EXP.	

ESPELIENTEA	DIRULAGUNTA PUNTUALA
EXPEDIENTE	
TITULARRA	AZKOITIKO UDALA
TITULAR	

**AZKOITIKO UDALA ETA UROLA KOSTAKO HEDABIDEAK, S.L. ENPRESAREN ARTEKO
HITZARMENA**

Azkoitia, 2019ko apirilaren 29a

BILDU DIRA

Alde batetik, Marijose Arregi Etxeberria andrea, Azkoitiko Udaleko Euskarako Zinegotzi Delegatua, Azkoitiko Udala ordezkatzan duelarik 2017ko martxoaren 23an Alkatetza Dekretu bidez hartutako erabakiari jarraituz. Egintza juridiko honetan parte hartzen du 2019ko apirilaren 25ean emandako Zinegotzi Delegatuaren Dekretuaren 2. ebazpenean hitzarmen hau izenpetzeko udal honen ordezkari izan onartutako ahalmena gauzatzeko.

Bestetik, Uxua Ostolaza Egaña andrea, Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresako kudeatzailea den aldetik, Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresako ordezkari izango delarik egintza juridiko honetan.

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu diote elkarri, eta honako hau

ADIERAZI DUTE

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak 7. artikuluan 1. atalean dio euskararen erabilera udalen eskumen propioa dela eta hori sustatzeko eta normalizazioa planifikatzeko udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko dituela. Artikulu bereko 5. atalean, berriz, eskumen horiek gauzatzeko erakunde publikoekin eta pribatuekin hitzarmenak eta elkarlanerako formulak izenpetzeko aukera eskaintzen du. Azkenik, 17. artikuluan 26. atalean berretsi egiten du euskararen erabilera sustatzeko udal planak idaztea, onartzea eta kudeatzea udalerrien eskumen propioa dela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 25. artikulua arautzen du udalerriek, beren interesak kudeatzeko ahalmenaren eta beren eskumenen esparruan, herritarren eta herriko taldeen beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jardura mota guztiak bultzatu eta behar adina zerbitzu publiko eman ditzakeela. Horrez gainera, arau horrek xedatzen du udalerriak eskumena duela euskara jarduerak antolatzeko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoaren 22. artikulua herritar guztiei aitortzen die eskubidea informazioa euskaraz jasotzeko.

38/2003 Lege Orokorrak, azaroan 17koak, Diru-Laguntzei buruzkoak 22. artikuluko 2. a) atalean xedaturikoaren arabera aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak era zuzenean eman daitezke. Lege horren 28. artikulua 1. atala dioenez, diru-laguntza horiek hitzarmen bidez arautuko dira.

Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresa 2004an sortu zenetik, Azkoitian euskararen normalizazio bideratzeko ekintzak egin ditu.

Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresa eragile eraginkorra da Azkoitian euskararen berreskurapena lortzeko.

Lankidetzeta-hitzarmena sinatzerakoan, kontuan hartu dira Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresaren gizarte eragina, taldean parte hartzen duten herritarren kopurua, elkartearen finkatze maila, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

Udalak eman izan ditu diru-laguntzak lehen ere, eta horrela egiten jarraitzeko asmoa du, euskara ekintza egokiak ematen baitie Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresak herritarrei.

Diru-laguntza izendun eta zuzen hau ematen da interes publikoko eta sozialeko helburuak betetzeko.

Interes horien ondorioz, bi aldeen arteko lankidetzeta udalerrarentzat onuragarria dela ikusirik, Azkoitiko Udalak eta Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresak erabaki dute lankidetzeta-hitzarmen hau izenpetzea ondorengo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENA: Hitzarmenaren xedea da Azkoitiko udalak (aurrerantzean, udala) Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresari 2019ko egitasmoa egiteko emango dion diru-laguntza arautzea.

BIGARRENA: Udalak diruz lagunduko dituen ekintzak honakoak dira:

- Urola Kostako Hitza egunkaria.
- urolakosta.hitza.eus atari digitala.

HIRUGARRENA: Udalak Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresari 2019an ZORTZI MILA ETA LAUREHUN euroko (8.400,00 €) diru-laguntza emango dio 2019ko udal aurrekontuko 3300.480.335.00.03 partidaren kontura.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

LAUGARRENA: Diru-laguntza ordainketa bakarrean egingo da, hitzarmena sinatu eta 30 lanegun baino lehen.

BOSGARRENA: Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresak egiaztatu egin beharko du diruz lagundutako ekintzak egin dituela, eta emandako zenbateko osoa erabili duela jarduera horiek egiteko. Horretarako, 2020ko urtarrilaren 31a baino lehenago udalean diru-laguntza justifikatzeko jarraian zehaztutako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, diru-laguntzak arautzen duen 2008ko apirilaren 29an hartutako 24/2008 Dekretu Foralaren 52. artikulua xedatutakoaren arabera:

- Egindako jarduera guztien laburpen memoria.
- Aurrekontuan jasotako aurrekontu-sailen balantze ekonomikoa eta banaketa. Jardueren gastuaren justifikazioa eta fakturen eta dokumentuen zerrenda, kudeatzaileak sinatua.
- Egitasmoa finantzatu duten bestelako diru-sarrera edo laguntza guztien zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita, kudeatzaileak izenpetuta.

SEIGARRENA: Urteko balantzearen datuak aztertu ondoren, Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresak superabita balu dagokion likidazioan, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio udalari, era proportzionalean.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmena sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2019ko abenduaren 31n bukatuko da.

ZORTZIGARRENA: Diru-laguntza kendu ala itzularazteko arrazoia izango da:

- Aurkeztutako dokumentazioko datuetan gezurrak jartzea.
- Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.
- Diru-laguntza eman den xederako ez erabiltzea.
- Xedapenetan ezarritako betebeharrak ez betetzea ala aldatzea.

BEDERATZIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publikoek edo pribatuek xede bererako eman ditzaketan bestelako diru-laguntzekin, eta Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresaren gainontzeko sarrerekin. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egoera hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio aipatutako enpresari.

HAMARGARRENA: Udala ez da arduratuko Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresan lanean ari diren langileez eta enpresa hori izango da langileekiko lan harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Urola Kostako Hedabideak, S.L. enpresak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HAMAIKAGARRENA: Zerbitzuak ematean sor daitezkeen kalte-galera guztiak estaliko dituen Erantzukizun Zibileko Poliza bat izan behar du Urola Kostako Hedabideak, E.M. enpresak. Bete egin behar du, beraz, abenduaren 22ko 389/98 Dekretua, jendaurreko ikuskizun eta jarduerak direla-eta eska daitezkeen erantzukizun zibilerako aseguruak arautzen dituena.

HAMABIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-Laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra.

HAMAHIRUGARRENA: Administrazioako auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajaz konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Azkoitiko Udaleko Euskarako
Zinegotzi Delegatua
Marijose Arregi Etxeberria

Urola Kostako Hedabideak, S.L.
enpresako kudeatzailea
Uxua Ostolaza Egaña



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **ZIRRIBORROA - BORRADOR**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>